

artelka

**NIRE GORPUTZA,
INDUSTRIAREN
ERABAKIA**

— **A** skapenaren itxuraren
eta askatasunaren
falaziaren atzean,
egitura ideologiko oso bat dago, zapalkuntza
birkontzeptualizatu nahi duena hura
iraunarazteko; izan ere, hura gainditzeaz
arduratzen diren subjektuak autobetikotzen
diren subjektuak dira, beren eraketa eta
subjektu izaera estuki lotuta baitaude
zapalkuntzaren betierekotasunarekin,
eta ez hura gainditzearekin.

Edulikia

6

10

24

34

36

EDITORIALA

Arteka

Askatasunaren falazia

KOLABORAZIOA

Joyce Errasti

**Sexu-askatasunaren
tranpa aro digitalean**

KOLABORAZIOA

Irene Ruiz

**Emakumearen
sexualizazioa: negozio-
aukera global bat**

IRITZIA

Nadia Perez

**Objektutik subjektura:
askapen sexualaren
aldeko borroka**

**HISTORIA
ERREPORTAJEA**

June Eguino

**Emakumea idealaren
irudia, Sección
Femeninaren eskutik**

Askatasunaren falazia

Editoriala

Teoría liberalaren arabera, gizartea indibidualtasun partikularrez osatutako multzo abstraktua da. Liberalentzat, gizabanakoa funtsezkoa eta hautsezina da. Erreferentzia kolektibo oro, dela Estatua, dela Zuzenbidea, indibidualtasunaren mugetan sortzen da; muga horiek gizabanako baten askatasuna beste baten askatasunarekin gatazkan sartzen den espazioko marjinak ordezkatzeko dituzte. Horrela, kolektiboa istripu gisa sortzen da, kontingentea da eta interes indibidualaren menpe dago, zeinak, bestalde, ez baitu beste mugarik indibidualtasuna bera baino.

Hala ere, indibidualtasuna, formalki gizarte jakin bateko gizabanakoen arteko gatazkan definitzen den heinean, abstraktuki mugatuta dago, eta gizabanako guztiak jokabide tipo horretara murriztu behar dira. Indibidualtasuna, laburbilduz, gatazkarik gabeko eremua da, abstrakzio bat mundu batean, zeina, bestalde, etengabeko gatazka baita. Harreman sozial jakin batzuen idealizazioa da abstrakzio-prozesu horren, hots, indibidualtasunaren sorrera-prozesuaren benetako emaitza; harreman horietan, gizabanakoak ekoizpen-harreman sozialen adierazpen gisa sortzen den subjektu pribatu gisa jarduten du. Ekoizpen-harreman sozial horietan, burgesa ekoizpen eta kapitalaren balorizazio bitartekoen jabe pribatua da, eta proletariotza, berriaz, bere lan-indarraren jabea.

Liberalek diote Estatua alboratzen dutela interes indibidualak modu naturalean orekatzen direlako: interes berdinak dira, berdinak diren jabeenak. Hala ere, abstrakzio hori baliozkotzat joko bagenu ere, Estatuak berdin jarraituko luke sortzen beharrezkotasun gisa eta indibidualtasunean, hots, interes kontrajarriak dituzten gizabanako pribatuetan oinarritutako harreman sozialen fundamentu gisa. Izan ere, ezaugarri horiek dituen gizarte batean non baten interesa beste baten interesaren bidez mugatzen den, besterendutako forma soziala (Kapitala) hartzen du kolektibotasunak, zeinak subjektu-baldintza erazten baitio gizabanakoari, klase menderakuntzaren funtsezko arma den botere-egitura politiko bati emateko. Gizabanako guztiak eskubide hori formalki aitortzen dien gizarte batean, Estatuak horrela konpontzen du subjektu-eraketaren funtsezko gatazka.

Teoria liberalak aldarrikatzen duen indibidualtasuna klase-mendekotasunaren oinarri ideologikoa da. Izan ere, bi subjektu jabetzen arteko berdintasun juridikoaren itxurapean, Kapitalean besterendutako forma kolektiboarekiko eta haren botere- eta menderakuntza-formekiko subordinazioa ezkututzen da, proletalgoaren klase-esplotazioan oinarritzen dena. Indibidualtasuna determinatua da, eta proletalgoarentzat esplotazioa eta miseria esan nahi du.

Horrela ulertutako askatasun indibiduala jada ezin da inolako aldaketaren oinarri izan; pertsonala politikoa da, baina beste zentzu batean. Izan ere, pertsonala zeregin kolektiboa da, zeregin politikoa. Oinarri kontzientetzat abiapuntu kolektiborik ez duen indibidualtasun orok nahitaez erreproduzitzen du bera indibidualtasun eraginkor gisa osatzen duen errealitate soziala; hau da, nagusi den kolektibitatearen forma sozialaren mende dago.

Modu horretan, jarrera indibidualek, subjektu despotiko batek sortutako egoera zapaltzaile bati ustez aurre egiten dion askatasun indibidual batean oinarrituta, despotismo hori erreproduzitu dezakete hari aurre egitearen itxuraren pean. Emakumeen sexualizazioaren gaia horren adibide garbia da. Iraultzaileen mozorroa janzten duten sektore liberalek diote errealitatea eraldatzen ari direla emakumeen askatasuna (sexuala) aldarrikatuz, baina, egia esan, autoritarismo-giro handiagoa sortzen laguntzen ari dira beren ekintza ustez ahalduztzaileekin emakumea sexualizatzen dutenean, desiratu den jabetza-objektu bat bihurtu. Sexu-as-katasuna, sektore horientzat, errealitate zapaltzaile batean surf egiten ikastean datza; zapalkuntza, beraz, ez da estrukturala, norbanakoak horren aurrean duen jarreraren arabera baizik.

***Liberalek diote Estatua
alboratzen dutela interes
indibidualak modu
naturalean orekatzen
direlako: interes
berdinak dira, berdinak
diren jabeenak. Hala
ere, abstrakzio hori
baliozkotzat joko bagenu
ere, Estatuak berdin
jarraituko luke sortzen
beharrezkotasun gisa
eta indibidualtasunean,
hots, interes
kontrajarriak dituzten
gizabanako pribatuetan
oinarritutako
harreman sozialen
fundamentu gisa***

Teoria liberal guztietan bezala, ahalduntzearen teorian ere errealtate soziala pertsonen arteko harreman abstraktuetara mugatzen da, eta, horregatik, kontraesan sozialak egoera asimetrikiotzat hartzen dira, abstraktuki berdinak diren bi subjektuen arteko harremanaren mailan gainditu beharrekoak. Ahalduntzea ez da errealtatea eraldatzea, baizik eta norberak errealtatean duen posizioa birplanteatzea. Horrela, zapalkuntzak ez du izaera sozialik, ezta klase-menderakuntzaren egiturekin inolako loturarik ere; aitzitik, erantzukizuna indibiduala da, eta bakoitzari dagokio.

Jarrera horien arrisku nabarmenena da, subjektu autoritario bati aurre egiteko, gizabanako baten askatasuna aldarrikatzen dutela –zeina baldintza sozial jakin batzuen emaitza baita–; ordea, egiaz, gizabanako hori eta subjektu autoritarioa, biak ala biak, baldintza sozial berdinen emaitza dira. Baldintza horien gainean artikulatzen dira subjektu autoritarioa eta haren osagarria: zapalkuntzari aurre egiten diola dioen subjektu indibidual askea. Horrela, subjektu libreek, emakumeak gizonaren zerbitzura egon behar duten objektuak direla dioten tradizionalisten, erreakzionarioen, misoginoen eta matxisten aurka, askatasunaren eta ahalduntzearen ikono bilakatzen dute sexualizazioa, hau da, egoera zapaltzaile bat. Ahalduntze horrek zapalkuntza-egoera bat kontzienteki onartzea eta hortik etekina ateratzea esan nahi du. Zapalkuntza gainditzeak, beraz, zapalkuntza kategorizatzen duten kontzeptuak birpentsatzea esan nahi du. Horri kontzeptuaren jabe egitea eta esanahi berria ematea deitzen diote. Zapalkuntza pertzepzio hutsa da.

Gizabanakoaren askatasunaren defendatzaileen soziologia espezifikoa kontuan hartzen badugu, esandakotik ezer ez da harritzekoa. Burges aurretakoak, gorputzaren errentatzaileak zein intelektual burges txikiak, guztiak dira emakumeen zapalkuntzatik onurak jasotzen dituzten subjektuak, eta beren ekintzen bidez zapalkuntza hori ahalbidetzen duten baldintzak indartzen dituzte. Ahalduntzearekin negoziua egiten duten subjektuak dira, kapital soziala eta dirua metatzen dutenak, zapalkuntza irabazien negozio bihurtzen dutenak; izan ere, zapalkuntzari maila indibidualen aurre egiteko aukera ematen duten autolaguntza-programak eskaintzen dituzte, sare sozialetan aberasten dira, askapenaren erreferente ideologiko bihurtzen dira, askatzeak dakarren ahaleginaren erreferente. Subjektu burges txiki horiek sentipen indibidual bihurtzen dute zapalkuntza, eta haren gaindipena boluntarismo hutsa, ahalegin meritokratikoan oinarritua –esfortzu hori da burgesia txikiak nahi eta desiratzen duen moduko gizarte kapitalistaren DNA–.

Iraultzaileen mozorroa janzten duten sektore liberelek diote errealtatea eraldatzen ari direla emakumeen askatasuna (sexuala) aldarrikatuz, baina, egia esan, autoritarismo-giro handiagoa sortzen laguntzen ari dira beren ekintza ustez ahalduntzaileekin emakumea sexualizatzen dutenean, desiratua den jabetza-objektu bat bihurtu

Ahalduntzearen teoriaren arabera, ahalduntzea ez da errealtatea eraldatzea, baizik eta norberak errealtatean duen posizioa birplanteatzea. Horrela, zapalkuntzak ez du izaera sozialik, ezta klase-menderakuntzaren egiturekin inolako loturarik ere; aitzitik, erantzukizuna indibiduala da, eta bakoitzari dagokio

Askapenaren itxuraren eta askatasunaren falaziaren atzean, egitura ideologiko oso bat dago, zapalkuntza birkontzeptualizatu nahi duena hura iraunarazteko; izan ere, hura gaingitzeaz arduratzen diren subjektuak autobetikotzen diren subjektuak dira, beren eraketa eta subjektu izaera estuki lotuta baitaude zapalkuntzaren betierekotasunarekin, eta ez hura gaingitzearekin. Horrela, irtenbide indibidualistek –ez dira jarrera ideologiko baino–, beren burua soluzio gisa baieztatze bidean, onartu egiten dute nagusi den forma kolektiboa, hots, Kapital subjektuaren forma; izan ere, etengabe berritu behar diren soluzioak dira, inpostura indibidualak diren neurrian. Egiaz, ihesbidea gizabanakoa bada, gizarte kapitalistak hala eratu duen gizabanakoa, eta iraultza sozialistaren aldeko jarrera kolektiboa hartzeari uko egin diolako bada hori ihesbidea, orduan ihesbide horrek eskatzen du gizabanakoa etengabe berritzea bera osatzen duten gizarte-harremanen baitan. Horrek esan nahi du betikotzen den zapalkuntzari aurre egiteko irteera indibidualak sustatzea; eta, beraz, irteera faltsuak sustatzea, zapalkuntzaren kateak sendoago estutzen dutenak, zapalkuntza hori asimilatzea errazago eginez. Aldiz, bide alternatiboa hau da: gizabanako determinatu bat errekonozitzea gizabanako askean eta gizabanakoaren ekintza libreetan, harreman sozial jakin batzuetan txertatua dagoena, eta, horregatik, harreman horien adierazpen indibidual soila dena. Eta horrek berekin dakar errealtatea iraultzeko beharrezkoa dela nork bere burua kolektiboan errekonozitzea, eta kolektibo hori eraldatzeko antolatzea. ●

KOLABORAZIOA

SEXU- ASKATASUNAREN *TRANPA* ARO DIGITALEAN

Testua — **Joyce Errasti**

Irudia — **Irati García de Iturrospe**



Zera zioen Thatcherrek 1987an: "There is no such thing as society. There are individual men and women zioen. Bloke sobietarraren desegitearekin batera, banakoaren interesak gorpuzteak pisu handiagoa hartu zuen partekatuak ziren arazoan aurka borrokatzeak baino. Horrela, norbanakora mugatu zen esfera-soziala: bakoitza bere bizitzaren erantzule bihurtzen da, eta norberaren gaineko erabakien ondorioak norbanakoan hasi eta bukatzen dira.

Aldi berean, 70eko eta 80ko hamarkadetan iraultza kultural bat gertatu zen, zeinaren bidez garaian baztertuta eta legalki zein sozialki debekatuta zeuden zenbait praktika normalizatzen eta onartzen hasi ziren (homosexualitatea, dibortzioak, emakumearen sexualitatea, etab.). Sexualitateak zentraltasun handia hartu zuen, eta balio eta arau sexual eta moralen aldaketa horrek "sexu askapenerako" garai gisa karakterizatu zituen urte horiek. Hamarkada horietan sortu zen, halaber, *my body, my choice* leloa ("nire gorputza, nire erabakia"), zeinak emakumeon eskubideak egikaritzea norbanakoaren eskubide autonomo eta mugagabe bezala ezartzen duen.

Nahiz eta ahalduzko tresna zein eskubide indibidualak egikaritzeko bide gisa aurkeztu, sexu askapen faltsu baten defentsan azaltzen da azken ideia hori. Izan ere, lehenik eta behin, indibidualtasuna gizartearen gainera jartzen da, eskubide indibidual horiek gainerako emakume langileengana izan ditzaketen ondorioak kontuan hartu gabe. Gainera, hori bera kultura hegemonikoaren oinarri bilakatu da; hala, nahimen indibidual horrek jatorrian izan beharko lukeen aniztasuna homogeneizatu egiten da, eta merkatuaren logikaren baitan txertatu. Zentzu horretan, garaiko aldaketa sozial eta kulturalak bereganatu ditu gizarte kapitalistak, etekinak irabazteko zein emakumea zapalduta mantentzeko funtzionalak zaizkion heinean, eta bere interes propioetara birmoldatzeko baliatu.

Planteamendu horren guztiaren ondorio zuzena sexualizazio zapaltzaile hori zilegiztatzea izan da. Izan ere, bizi garen gizarte hipersexualizatuan, emakumeon objektu sexual izaera indartu egin da askatasun sexualaren ideia faltsu horren izenean.

70eta 80ko hamarkadetan sortu zen *my body, my choice* leloa ("nire gorputza, nire erabakia"), zeinak emakumeon eskubideen egikaritzea norbanakoaren eskubide autonomo eta mugagabe bezala ezartzen duen

ZER IKUSTEN DUGU SARE SOZIALETAN?

2024an gutxienez 5.000 milioi pertsonak zituzten sare sozialak (biztanleria osoaren %60k baino gehiagok). Baliabide digital horiek sarbide errazekoak eta guztiz irisgarriak dira. Gainera, arlo digitalean, *Facebook*, *Instagram*, *TikTok* edo *X* plataformetan eduki bisualetarako joera argi bat ere badago, argazkiek eta bideoek gero eta garrantzia handiagoa dutelarik. Hori horrela, industria sexualak ere bere egitura eta eskaintza moldatu ditu, teknologia eta zabalpen forma berri horien arabera aldatuz, adibidez, bideo laburragoak eginez. Hori dela eta, eduki sexual edo pornografikoz bete dira jatorrian pornografikoak ez ziren edo behintzat horretarako espresuki sortu ez ziren espazioak. Horien artean nagusi dugu *OnlyFans* (OF) plataforma.

Sare sozialei dagokienez, zaila da jakiten bertan argitaratutako edukiaren zer ehuneko den pornografikoa. Hori estimatzeko bide bakarra sareek arrazoi hori dela-eta beren-beregi ezabatzen duten edukia aztertzea da. Izan ere, gogora dezagun izaera sexualeko irudiak eta bideoak debekatuta daudela aplikazio horietan, eta moderatzaileen lana dela eduki hori ezabatzea.


Eduki sexual edo pornografikoz bete dira jatorrian pornografikoak ez ziren edo behintzat horretarako espreski sortu ez ziren espazioak

Facebooken, 2023ko lehenengo hiruhilekoan interbenitu zituzten argitalpenetatik %33,30 “adinez nagusien biluztasuna eta sexu-aktibitatea” erakusteagatik interbenitu ziren. *Instagram*-en eduki horren ehunekoa baxuagoa da; %20,81ekoa, zehazki. *TikTok*-en kasuan, adinez txikiak direnak babestearekin zerikusia dutenak dira gehien ezabatzen direnak (%30,6). Hauek daude horren barnean: adinez txikiak direnen biluztasuna eta sexu-aktibitatea (%16,89), *grooming*a (%0,85) edo adinez txikiak direnen sexu-esplotazioa (%0,7). Adinez nagusiak direnei dago-kienez, eduki sexualekoak dira %14,7, barne hartzen dituztela sexu-aktibitateak (%9,18) eta sexu-esplotazioa (%5,51).

Ehuneko horiek azaleko informazioa besterik ez dute eskaintzen, alde batetik, soilik moderatutako edukari dagokizkiolako eta eduki gehienak kontrol horretatik ihes egiten duelako, eta, bestetik, ehuneko horiek interpretatzerakoan sareetara igotzen den irudi kopurua ere kontuan izan behar delako. Are gehiago, ulertu behar da sare sozialak ere enpresak direla. Haien irabaziak arriskuan ez dauden bitartean, edozein eduki onartzeko prest daude. Zentzu horretan, argigarria da oso Arturo Béjar METAko ingeniari ohiak “Redes sociales: La fábrica del terror” saioan adierazitakoa. Haren hitzetan, adinez txikiak direnen suizidio-tasaren eta sareek sortzen dituzten ondorioen jakitun da Mark Zuckerberg, baina uko egiten dio inongo neurririk hartzeari.

Dena den, eduki sexual esplizitu horrez gain, sareek eragin handia duten emakumearen objektu sexual irudia indartzen duen masa psikologia horretan, bereziki kanon estetikoaren ezarpenari dagokionez. Izan ere, bitarteko paregabea dira kultura sozialean eragiteko eta industria handiei publizitate perfektua egiteko. Horrela, *trend* (joera) ugari oharkabean zabaldu dira gazteen artean; horien artean aipagarriak dira, adibidez, “I’m just a girl” (neska bat besterik ez naiz) edo “body count” (harreman sexualak zenbat pertsonarekin izan dituzun) izeneko joerak. Joera edo *trend* horiek genero rolak indartu besterik ez dute egiten.

Aldi berean, emakumeen segurtasun faltaren kontu aberasten diren industrientzako publizitate eremu ere badira sare sozialak. Horien artean aipa ditzakegu, adibidez, kosmetikaren, ebakuntza estetikoaren eta medikuntza estetikoaren eta dietetikaren industriak. Nahiz eta haien presentzia hain bista-koa ez izan, modu inplizituan ageri dira hainbat eta hainbat bideotan eta, nolabait, sareen arabera gazteek izango beharko luketen *bizi-estilo* horren parte dira.



Sareetan ohikoak dira azala zaintzeko errutinak deritzenak; desberdinak goizerako eta gauerako, noski, eta gutxika-gutxika jendearen komunak azalerako produktuz bete dira


Lehenik eta behin, azalaren zaintza aipatu beharko litzateke. Izan ere, orain arte presentziazirik handia makillajeak izan badu ere, azalaren zaintza da egun industria kosmetikoan lidergoa duena. Zehazki, azalaren zaintzak %42ko merkatu-kuota du edertasunari loturiko sektorean. Sareetan ohikoak dira *azala zaintzeko errutinak* deritzenak; desberdinak goizerako eta gauerako, noski; eta gutxika-gutxika jendearen komunak azalerako produktuz bete dira. Azken hilabeteotan, gainera, gauetan aurpegia argitzeko LED bidezko makinak nagusitzen hasi dira, izan luxuzkoak, izan *Sheinen* erostekoak. Nahiz eta orain arte kosmetika edertasunarekin soilik lotu, gero eta gehiago entzuten da osasunaren argudioa (eguzkitako krema jaun eta jabe da errutina horietan), eta adinari aurre egiteko bide gisa ere saltzen da (erretinola, C bitamina eta bestelako osagaiak guztion ahotan daude).

Hala, zahartzeari lotuta ageri zaigu, baita ere, medikuntza estetikoaren gaia. SEMEren (medikuntza estetikoaren Espainiako elkarte) 2023ko datuen arabera, 16-25 urte arteko gazteen %20k tratamendu estetikoren bat egin du. Horien artean ohikoak dira botoxa eta azido hialuronikoaren erabilpena, baina bertsio osasungarriagoa ere badago, eta askok bitaminak edota plasma injektatzearen alde egiten dute.

Eta aldaketa handiagoa nahi dutenek ebakuntza estetikoetara jotzen dute. Estatuan egiten diren gehienak (%85) emakumei egiten zaizkie. Horien artean nagusi dira bularra handitzea, liposukzioa eta bularra goratzea, garaian indarrean dagoen kanonari jarraikiz. Dena den, pornografiak alor honetan ere eragina izan du, eta baginoplastia (baginaren itxura aldatzeko ebakuntza) eta uzkia zuritzea zabaltu dira, besteak beste.

SEMEren 2023ko datuen arabera, Espainiako 16-25 urte arteko gazteen %20k tratamendu estetikoren bat egin du

Azkenik, nahiz eta orain arte kanon estetikoaren arabera kurbadun gorputzak desiratuenak izan, egun argaltasuna nagusitu da. Hortaz, osasuna alde batera utzita, sareek muturreko argaltasun hori sustatzen dute. Lehen, ipurdirako ariketa fisikoak aurki zitezkeen nonahi. Orain, gorputzeko atal bakoitza argaltzeko zer mugimendu egin behar diren edota esfortzurik gabe argaltzeko trikimailuak (*spoiler*: ez jatea) hedatzen ari dira. Gainera, sareak kirolariz bete dira bat-batean: izan egun osoa kirola egiten pasatzen dutenak eta hilean bi maratoi egiten dituztenak, izan aldaketa fisikoa egiten ari direnak. Muturreko bestelako joerak ere aurki daitezke: esaterako, elikadura-nahasmendu bat (bulimia, kasu) nola ezkutatu erakustea eta bakoitzak horretarako bere esperientziak eta abileziak partekatzea. Lehen aipatutako elkarrizketa horretan, Arturo Béjarrek dio 18 urtetik beherako zazpi pertsonatik bat bere buruarekin okerrago sentitzen dela *Instagramen* egon ondoren.




Hori dela eta, elikadura-nahasmenduen kasuak (anorexia, bulimia...) areagotzen ari dira. Egun, neska gazteen (12-24 urte bitartekoen) %70 nahasmendu horietakoren batekin identifikatzen da. Era horretako kasuak artatzeko osasun-unitate bereziak irekitzen ari dira zenbait hiritan, Araban adibidez, non 2019tik kasuak bikoiztu egin diren. Ikerketa berri batek baieztatu egin du gorakada horrek sare sozialekin duen harreman estua: sare sozialak zenbat eta gehiago erabili, are aukera gehiago daude elikadura-nahasmendu bat garatzeko. Izan ere, kanona betetzen dutenei etengabe begira egoteak nahitaez dakar haiekin alderatzea eta bakoitzaren gorputzarekin nahigabetuta egotea. Horrez gain, horrelako gaixotasunak gero eta goizago hasten dira: batez besteko adina 14 urtetik 12 urtera jaitsi da.

Horretan guztian *influencer* deritzenek garrantzizko rola jokatzeko dute, orain arte azaldutako hori guztia gorpuzten baitute. Kontsumitzaileen egunerokoan txertatuta daudenez, eredu gisa edo gertuko ikusten dituen jendeak, eta aintzat hartzen dute *influencer* horiek egindakoa. Hala ere, enpresen produktuak saltzeko giza marketina direla izan behar dugu kontuan, eta etengabe ateratzen dituztela etekin indibidualak irudi sexualizatuen bidez. Horrez gain, inork bete ezin duen ideal bat ezartzen dute: bidaia, bizitza perfektuak, gorputz lirainak...

Hori guztia bereziki arriskutsua da adinez txikiak direnen kasuan. Izan ere, nahiz eta sare sozialek erabiltzaileen gutxieneko adin bat ezarri (adibidez, *Facebook*, *Instagram* edo *TikTok*, 13 urte), ez dago kontrol nahikorik eta edozeinek sor dezake perfil bat. *TikTok*, adibidez, 2023ko lehenengo hiruhilekoan 16 milioi kontu ezabatu ziren, 13 urtetik beherakoenak zirelako. Bertako erabiltzaileen %41 16 eta 24 urte artekoak dira. Gazteenentzat sarbidea erraza da, eta gero eta gazteago hasten dira bertan ikusitakoa normalizatzen (kontuan izan pornografia ikusteko adina ere 8 urtera jaitsi dela).

Ikerketa berri batek baieztatu egin du elikadura-nahasmenduen gorakadak sare sozialekin duen harreman estua: sare sozialak zenbat eta gehiago erabili, are aukera gehiago daude elikadura-nahasmendu bat garatzeko



Gainera, sare horiek (X, TikTok, Instagram, Reddit...) bestelako plataformetarako sarbide dira, horietan normalizatzen baitira sexualizazioa beste muturrera eramaten duten espazio digitalak (adibidez, *Onlyfans*). Ez da ausazkoa noizean behin “lupan” Madrilgo Callao kalean egiten diren el-karrizketa horiek agertzea: “Zenbat urte dituzu? Hamazazpi. Zenbat diru duzu? 200.000 euro. Non lortu duzu hainbeste diru? Webgune urdinean”. Ez dute izena esaten, baina *OnlyFans*en publizitate argia egiten ari dira.

ONLYFANS: ORO EZ DA URRE

OnlyFans da, aurreko plataformekin alderatuta, ia modu eskusiboa eduki pornografikoz osatuta dagoena. Eta horretan berritzailea izan da. 2016. urtean sortu zen webgune honek mikromezenasgoa du funtzionatzeko bide: sortzaileek beren materialak igotzen dituzte, eta horien truke haien jarraitzaileek (fanak) hileroko ordainketa bat egiten dute. Jatorriz beste erabilera batzuetarako diseinatu zen; adibidez, arte ekoizpenerako. Hala ere, oso politika malguak izan ditu eduki sexualaren zabalpenari dagokionez, eta egun sexu industriaren plataforma nagusietako bat bilakatu da, horretan espezializatuz. Bertan bestelako edukiak aurki daitezkeen arren, gehien-gehiena eduki sexuala da. Argi dago industria horren aldeko apustua egin duela enpresak, Leonid Radvisky pornografiaren *streaming* enpresa bateko sortzaileak plataforma honen %75 erosi baitzuen 2018an.

Azpimarratzekoa da Covid garaian plataformak hartu zuen garrantzia: 2019an 29 milioi erabiltzaile izatetik, 2020an 120 milioi izatera igaro zen. Egun, 304 milioi erabiltzaile eta 3 milioitik gora sortzaile ditu, eta hilean 302 milioi bisita inguru. Argi dago gure gizartean ere zabalpen handia izan duela. ESET enpresak egindako ikerketa baten arabera, Espainiako Estatuan, inkestan parte hartu zutenen %96k ezagutzen du plataforma, eta %87k bertako erabiltzaile dela onartu du. Gainera, %7k bertan eduki sortzaile dela adierazi du. Federación de Mujeres Jóvenes elkartearen arabera, Espainiako Estatua eduki sortzaile gehien dituen bosgarren estatua da; horietatik %97 emakumezkoak dira.

Espainiako Estatuan, inkesta batean parte hartu zutenen %96k ezagutzen du OnlyFans plataforma, eta %87k bertako erabiltzaile dela onartu du. Gainera, %7k bertan eduki sortzaile dela adierazi du. Federación de Mujeres Jóvenes elkartearen arabera, Espainiako Estatua eduki sortzaile gehien dituen bosgarren estatua da

Aylo pornografia enpresa erraldoiaren (PornHub, RedTube, YouPorn eta Xtuberren jabea) bikoitza irabazten du OnlyFansek

Hazkunde horren atzean hainbat arrazoi egon daitezke. Lehenik, ulertu behar dugu gero eta interakzio sozial gehiago arlo digitalean garatzen direla, eta, noski, sexua ez da horren salbuespen izango. Gainera, bizi dugun testuinguru ekonomiko, kultural eta sozialak horixe ahalbidetu du. Gero eta bizitza prekarioagoak ditugu, eta krisi garaian ere dirulaguntza publikoen sistema ahulduta dago, mezu faltsuak zabaldu dira, sinetsaraziz bertan dirukantitate handia lortu daitekeela, modu sinplean.

Erabiltzaileen profilari dagokionez, %69 35-44 urte arteko gizonak dira. AEBko ikerketa baten arabera, gehienak ezkonduak, zuriak eta klase ertain-altukoak dira. Sortzaileen kasuan, %97 emakumeak dira (AEBko ikerketa horrek berak 20-39 urte artekoak direla ondorioztatu zuen). Gehienbat emakume gazte eta adinez txikiak erakartzen ditu plataformak, modu erraz eta azkarrean dirua lortzeko aukera baitago.

Nahiz eta sareetan *OnlyFans* irabaziak modu errazean eskuratzeko bide bezala zabaldu, arrakala handia dago kontuen artean. Kontu handiek hilean 100.000 dolar irabaz ditzakete, batezbesteko profilek 150 dolar irabazten dituzte gutxi gorabehera (estimazio bat da, egiazko datuak jakitea ez baita erraza). Horrela, irabazien kontzentrazio handia dago: goi-mailako eduki sortzaileek, %10ak, urteko negozioaren %70 lortzen dute, eta sortzaileen gehiengoak oso gutxi irabazten du. Beste era batera esanda, jende gutxi jarraitzaile asko eta, beraz, jende gehienak oso jarraitzaile gutxi ditu. Hori, halaber, ez da sareen bidez zabaltzen duten informazioa.


Dena den, sortzaileak dirusari horren %80 bereganatzen du, gainerako %20a enpresak jasotzen baitu. Aipatzekoa da dirua irabazten hasten zaren heinean enpresak jarraipena egiten dizula zure kontua (eta, ondorioz, zu) hobeto nola esplotatu baloratzeko eta, beraz, sortzaileen kontura haien irabaziak hobetzeko. 2024an enpresaren sarrerak 6.300 milioi dolarrekoak izan dira. Bitxikeria bat: Aylo pornografia enpresa erraldoiaren (PornHub, RedTube, YouPorn eta Xtuberren jabea) bikoitza irabazten du *OnlyFansek*.

Esan daiteke pornografia plataforma horien forma berritzailea dela *webgune urdina* eta, momentuz, berri izate horrek pornografia tradizionalen errotuta dauden sareak eta aginte-kateak ekiditen dituela. Horregatik, espazio seguru gisa saldu izan dute, zu baitzara, nolabait, zeure burua esplotatzen duena eta, teorikoki, mugak jartzeko gai dena. Hori dio, adibidez, Mia Khalifa porno-izar ohiak, zeinak, abusuzko kontratu bat zela eta, pornografia tradizionala utzi zuen eta bere OF kontua ahalduntzerako bitarteko gisa kokatzen duen. Hala ere, plataformarako *management* agentzia mafiosoak sortzen hasi dira plataforman. Horrez gain, erabakimen librearen kontua ere ez da egia: AEBko ikerketa baten arabera, sortzaileen %30k sentitzen dute plataformak presionatu egiten dituela, postaz mehatxuak jasotzen baitituzte, edukia sortu ezean kontua itxiko dietela esanez. Presio horri, gainera, erabiltzaileek etengabe pertsonalizatutako materiala eskatzea gehitu behar zaio. Kontuan izan behar da erabiltzaileek uneoro eduki berria nahi dutela (ez dute beti berdina ikusi nahi) eta horrek sortzaileen ustezko muga gorri horien lausotzea dakarrela. Aldi berean, kontaktu zuzenik ez dagoenez, sortzaileek ez dute arrisku berezirik sumatzen, eta erabiltzaileek ez dute erruduntasun sentsaziorik. Horrek guztiak formatu hauen onarpenera dakar.

AEBko ikerketa baten arabera, OnlyFanseko sortzaileen %30ek sentitzen dute plataformak presionatu egiten dituela, postaz mehatxuak jasotzen baitituzte, edukia sortu ezean kontua itxiko dietela esanez. Presio horri, gainera, erabiltzaileek etengabe pertsonalizatutako materiala eskatzea gehitu behar zaio

Ezin da pentsatu, gainera, indarkeria arlo fisiko-tik digitalera igarotzeak ez dituela ondorio lazgarri berbeak sortzen. AEBko ikerketa horrek dioenez, parte hartzaileen %34k ondorio fisiko eta psikologikoak pairatzen dituzte: antsietatea, depresioa, autoestimua baxua, beldurra, lotsa... Esan bezala, plataforma berria da, baina pornografia tradizionalak bertan aritu diren emakumeengan nola eragin duen kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu askok ez dutela bizitza onik izan industrietatik ateratakoan. Gogora dezagun 2017ko azarotik 2018ko urtarrilera (hiru hilabetea) gutxienez bost emakumezko aktore ohik beren buruaz beste egin zutela edo gaindosien eraginez hil zirela. Askok bortxaketa- eta erailketa-mehatxuak jasotzen jarraitzen dute, eta ez dute beste lan bat aurkitzeko edota harreman sozial "normalak" izateko aukerarik izaten. Haien deshumanizazioa totala da. Epe laburreko ondorioak egun antzeman daitezke, baina ikusteke dago aztarna digitalak iraun bitartean horrek eduki sexualaren sortzaileei sortuko dizkien buruhausteak.

Amaitzeko, ezin da aipatu gabe gelditu plataforma honetan adinez txikiak direnek duten parte hartzea. Save the Children elkartearen arabera, Espainiako Estatuan hamarretik zazpik era honetako eduki sexualak kontsumitzen dituzte. BBC kateak ere argi adierazi du: OFk ez du adinez txikiak diren pertsonen kontuak sortzen ez dituztela bermatzeko kontrol eraginkorrik. Horrela, asko dira identifikazio faltsuarekin kontua sortu eta haien irudiak saldu dituzten adingabeak (12, 13, 15... urtekoak). Baina, gainera, adinez nagusiak direnen kontuetan ere ageri dira. Eduki hori batzuetan adinez txikiak direnek igotakoa da, eta beste batzuetan haien borondatearen kontra argitaratu da (izan mehatxuak direla eta, irudiak lapurtu dizkietelako, edo dena delakoa). Eta are larriagoa dena: adinez txikiak direnen esplotazio sexual eta salerosketa kasuak ere agertu dira; izan ere, desagertutako adinez txikiakoen bideoak topatu dira bertan.





***Hipersexualizazioaren
kulturak emakumeen
autosexualizazioa
sustatzen du onespen
soziala lortzeko
bide gisa. Hortaz,
askatasun sexualaren
aitzakiapean
emakumeon objektu
sexual irudi hori
normalizatzen eta
onartzen da***

Saltzen dute emakumeen ahalduntzea dela kulturalki bizi duten objektifikazio hori beren probetxurako erabiltzea. Aldiz, gertatzen dena da emakumea guztiz deshumanitzatzen dela, eta merkatuek emakumeen gorputzak erabiltzen dituztela beren irabaziak areagotzeko

ETENIK GABEKO GURPILA


Argi dago emakumeon sexualizazioaren merkantilizazioak emakumeengan ondorio psikologiko, fisiko eta sozial larriak sortzen dituela. Azken finean, plataforma digitalak gure egunerokoan txertatu dira, eta nolabait gure identitatea ere horien bidez sortzen dugu. Nerabeen kasuan, bereziki, haien garapen psikologikoan eragiten dute, eta identitate digitalak gero eta garrantzi handiagoa hartu du. Horren bidez harremantzen gara, horren bidez ikasten dugu, horren bidez proiektatzen dugu gure bizitza eta, noski, horren bidez adierazten dugu sexualitatea egun.

Horrela, hipersexualizazioaren kulturak emakumeen autosexualizazioa sustatzen du onespen soziala lortzeko bide gisa. Hortaz, askatasun sexualaren aitzakiapean emakumeon objektu sexual irudi hori normalizatzen eta onartzen da. Valentziako ikerketa baten arabera, hamar pertsonatik lauk uste du plataforma digitalen bidez partekatutako eduki sexuala onargarria dela. Aldi berean, autosexualizazio horren bidez enpresak zein pertsona zehatz batzuk aberasten dira.


Hau da, bizi garen testuinguruan, lan-baldintzen okertze bat dago, prezioek gora egiten dute eta lan-ezegonkortasuna nagusi da; hori, noski, are bortitza goa da emakume langileon kasuan. Kapitalak, ordea, bere irabaziak bermatzen jarraitu behar du eta, beraz, ekoizpen adar berriak irekitzen ditu edo errentagarri zaizkion merkatuak indartzen ditu. Horretarako, gizarte kapitalistan dagoen masa psikologia –hau da, emakumeok bigarren mailako subjektu izatea eta horrela sozializatuta egotea– baliatu eta psikologia hori indartu egiten dute. Horrek guztiak sexu askapen erreala batera eramane beharrean, emakume langileon zapalkuntzan sakontzen du.

Arestian azaldu da hainbat plataformak masa psikologia horretan zer eragin duten eta nola betikotzen duten objektu sexualaren iruditeria hori. Baina, gainera, horren atzean interes ekonomiko argiak daude. Lehenik, *influencer*rek eta eduki sortzaileek milaka euro irabazten dituzte argitalpen bakarraren truke (María Pombok, adibidez, argitalpen batekin 7.500€ ere kobratzen dituela uste da), eta are gehiago kanpaina luzeak badira. Bigarrenik, publizitatearen objektu diren enpresen irabaziak ere izugarriak dira (kosmetikan liderrak diren enpresak, adibidez, diru-sarreraren markak hausten ari dira urtez urte). Azkenik, sare sozialek zein bestelako plataformek ere irabaziak lortzen dituzte bertan argitaratzen den eduki horretatik.

Hasieran azaldutako askatasun sexualaren ideiak harreman handia du horrekin guztiarekin. Izan ere, ikusi den bezala, indarrean dauden bote-re-egiturak indartzeko besterik ez du balio eta, nolabait, faltsua den aukera-askatasunaren ilusio hori aurkeztzen du. Emakumeei esaten zaie esplotatu dezaketen kapital erotikoa dutela, eta nahi badute horren bidez aberastu daitezkeela. Aldi berean, hori onartuko duten subjektibitateak sortzen dira. Azken finean, saltzen dute emakumeen ahalduntzea dela kulturalki bizi duten objektifikazio hori beren probetxurako erabiltzea. Aldiz, gertatzen dena da emakumea guztiz deshumanitzatzen dela, eta merkatuek emakumeen gorputzak erabiltzen dituztela beren irabaziak areagotzeko. ●



EMAKUMEAREN SEXUALIZAZIOA: NEGOZIO- AUKERA GLOBAL BAT



Testua — **Irene Ruiz**

Irudia — **Elene Uribarri**

Sexualizazioak hainbat eremu zeharkatu ditu. Hain zuzen ere, tradizio handikoenez – prostituzioa eta pornografia – harago joan da, eta entretenimendu eta komunikazio arloetara hedatu da. Emakumearen irudikapen sexualizatua sektore horietan errentagarritasuna eta arrakasta lortzeko funtsezko elementu gisa finkatu da. Horrela, emakumearen gorputza desiraturiko ondasun bihurtu da, eta haren sexualizazioa oinarritzko salmenta-estrategia izatera pasa da.

Erreportaje honen helburua sexualizazioaren industria deitzen denaren neurria aztertzen saiatzea da, eta, horretarako, agerian jarriko ditugu industria horri eusten dion negozioaren bolumena eta hari etekina ateratzen dioten eragileak.

SEXUALIZAZIOAREN INDUSTRIAREN GARAPENA KAPITALISMOAN

Kapitalismoaren garapenak areagotu egin du emakumeen sexu-balioa. Kapitalak bere beharraren arabera moldatzen ditu prostituzioa eta pornografia, eta emakumearen sexualitatearen merkantilizazioan etekin ekonomiko handiak lortzeko merkatu-nitxo berri bat ikusi du. Horrela, sexu-industria globala ari da eratzen, zeinaren hazkundea bizkortu egin zen 70eko eta 80ko hamarkadetatik aurrera, teknologia berrien bidez, eta berrikiago, sare sozialen gorakadaren ondorioz.

Azken horiek, zabalpenerako gaitasun handia eta sarbide erraza dutenez Interneten bidez, modernizatu egin dute sexualitatearen salmenta, eta beste esparru ekonomiko batzuetara hedatu, nahiz eta esparru horien funtzioak sexu-jarduerarekin zuzeneko loturarik ez duen. Izan ere, entretenimenduaren sektorea (zinema, musika, bideo-jokoak etab.) eta komunikazioarena (online plataformak) sexualizazioaren industriaren parte izatera igaro dira, eta hura sendotzen laguntzen dute.


Gizarte kapitalista berregituratzen ari den garai betean, sexualizazioaren merkatuak rol garrantzitsua jokatzeko du metatze-ziklo berriak eragitean, eta hiru premisatan egituratuta dago. Lehenengoa politika kapitalisten maila globaleko hedapena da, zeinak sektorea konfiguratzea bultzatzen duten. Bigarrena egiturazko pobrezia da, zeinak mundu osoko ehunka mila emakume proletariari eragiten dien eta industria horretan sartzera behartzen dituen biziraun ahal izateko. Hirugarrena da gizarteak normalizatzea emakumea plazer-objektua dela. Pixkanaka-pixkanaka indartu den ideia horrek emakumearen aurkako indarkeria iraunarazi du, eta haren deshumanizazioa indartu du.

Sexualizazioaren merkatuak gaur egun duen tamaina eta balioa elite ekonomikoen bultzadaren eta agintean dagoen klase politikoaren babesaren ondorio dira, haiek baitira emakumearen sexualitatearen merkantilizazioa sustatu dutenak, ekartzen dituen interesengatik: izan sortzen dituen milioi askoko etekinengatik, izan ekonomia nazionalen berrosaketan betetzen duten paperagatik.

Sexu-industriaren sustapenean interes ekonomikoak eta politikoak nola uztartzen diren ulertzeko adibide argi bat prostituzioa da. Pobrezia-tasa handiko zenbait herrialdetan, emakume eta neskatila langileen sexu-esplotazioa balio-kate globalean sartzeko estrategia bihurtu da. Nazioarteko finantza-erakundeek, besteak beste Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), aisialdi- eta entretenimendu-industriak garatzeko exijitzen diete zorpetutako herrialdeei, zorrak kitatzeko bide gisa. Gauzak horrela, prostituzioa gero eta truke-txanpon garrantzitsuagoa da lurralde periferikoak ekonomia kapitalistara txertatzeko, hainbestearino, non, adibidez, Thaiandiako agintariak argi eta garbi adierazi baitute saihetsezina dela “emakume belaunaldi bat galtzea” ekonomia dinamizatzeko.

Modu horretan elite ekonomikoek eta politikoek ehunka mila emakume bideratu dituzte sexu-industriara, eta, horretarako, zirkuitu batzuk sortu dituzte emakume horiek bi norabidetan lekualdatzeko: euren jatorrizko herrialdetik ongizate maila handiagoko beste herrialde batzuetara eta landa-eremutik hiri handietara. Estatuek bultzatu egiten dituzte migrazio-fluxu horiek, eta askotan pertsonen salerosketa-sareek esku hartzen dute zirkuitu horietan. Polizien, politikarien eta administrazioen inplikazioa begi bistakoa da prostituzio eta pornografia kasuetan.

Langabezia-tasa handiak, pobrezia, Estatuaren baliabideen murrizketak edota gerrak emakume asko erabateko prekarietate-egoeran uzten ditu. Lan merkatutik gero eta emakume langile gehiago kanporatzen diren testuinguru honetan, prostituzioa, pornografia eta antzeko sektoreak bizirauteko aukera bakar gisa agertzen dira debalutatutako sektoreetan ere —hala nola zainketen kate globalean sartzeko lortzen ez duten emakumeentzat.



***Sexualizazioaren
merkatuak gaur egun
duen tamaina eta balioa
elite ekonomikoen
bultzadaren eta
agintean dagoen
klase politikoaren
babesaren ondorio dira***

Sexualizazioaren industriaren nazioarteko hedapenean beste mugarri garrantzitsu bat 70eko eta 80ko hamarkadetan sexu-iraultzan gertatu ziren aldaketa sozialak eta kulturalak izan ziren. Askatasun indibidualen aldarrikapenaren pean, sexualitateak zentraltasun handia hartu zuen bai mugimendu sozialetan, bai ezkerretik etorritako politika instituzionaletan. Sexualitatearen inguruko balioak eta arauak eraldatzen hasi ziren, eta ezbaian jarri zen sexu-portaerari buruzko garai hartako ordena tradizionala; horrela, dibortzioa legeztatu zen, eskuragarri jarri ziren antisorgailuak eta abortua, onarpen handiagoa lortu zuen homosexualitateak... Baina gizarte kapitalistak era adimentsuan bereganatu zuen aldaketa horiek guztiek eragindako egoera berria, eta aldaketa bakoitza bere interes ekonomikoetara birmoldatu zuen, sexu-askapenerako giro erreala sortu beharrean.

Horrek guztiak zuzeneko eragina izan zuen masen psikologian; izan ere, normalizatu zuen norberaren sexu-adierazpenaren forma ahalduzalea eta transgresorea dela emakumearen sexualizazioa. Ondorioz, handitu egin zen emakumearen sexualitatea salduz etekinak ateratzen dituzten sektoreen onarpen soziala; adibidez, erresistentzia handirik gabe zabaldu zen pornografia. Normalizazio-prozesu horretan, teknologia berrien eta Interneten garapena erabakigarria izan da sexu-edukiak masiboki hedatzeko, eskuragarri egiteko, eta bestela hurbilduko ez ziren gero eta emakume eta gazte gehiago industria horretara biltzeko.

Era horretan, negozio-arlo berriak gehitzen zaizkio emakumearen sexualizazioaren merkantilizazioari, korporazio handien irabaziak maximizatzeko helburuarekin.

INDUSTRIAREN DIBERTSIFIKAZIOA ARLO BERRIETA

Jarraian, atariko analisi bat egingo dugu sexu-edukia bultzatu duten eta emakumearen irudia objektu sexual gisa indartu duten sektoreen alderdi orokorreari buruz. Bereziki, web orrietan, sare sozialetan eta zineman jarriko dugu fokua.

***Negozio-arlo berriak gehitzen zaizkio
emakumearen sexualizazioaren
merkantilizazioari, korporazio handien
irabaziak maximizatzeko helburuarekin***



Porno orriak: sektoreko erraldoia

Pornografia-industriaren arrakastaren oinarria da mugarik gabe merkaturatzen duela izaera sexuala duen ikusizko ia edozein material. Ez dago mugarik: grabatutako bortxaketak, adimen artifizialak sortutako irudiak, *sexting*-trukeetatik lapurtutakoak edota sexu-esplotazio egoerak erakusten dituztenak.

The New York Times egunkariak 2020an argitaraturiko ikerketa batek jakinarazi zuen adin txikikoei egindako bortxaketen eta haur-pornografiako eszenen bideoak aurkitu zituztela Pornhub webgunean –sektoreko atari liderra eta Alo enpresaren jabetzako, lehen MindGeek izenez ezagutzen zena–.

Dena den, ikusizko materialak ez dira orri horiek finantzatzeko iturri bakarrak. Halaber, izugarri handitzen dituzte haien etekinak publizitate-iragarkiek –batez ere prostituzioa sustatzen dutenek–, kontsumitzaileen datuen salmentak eta online orrietako harpidetzek edota bazkidetzek. Sektorearen iluntasuna dela-eta zaila bada ere etekinen zenbatekoa zehaztea, duela gutxiko ikerketa batzuen arabera, web-orri pornografikoen urteko diru-sarrerak 15 mila milioi dolarretik gorakoak dira.

Web-orri pornografikoek nazioarteko negozio erraldoi bat osatzen dute, eta haren enpresasarea egunero hamarnaka milioi erabiltzaile eta bisita dituzten webguneak gidatzen dituzten konpainia handiek gidatzen dute. Mundu mailako webgune pornografiko ezagunen adibide hauek argigarriak dira negozioaren garrantzia azaltzeko: Pornhubek batez beste 928 milioi bisita izan zituen 2024an hilero, eta Xvideosek, aldiz, hilean 613 milioi bisita –azken horren jabea WGCZ da, industria-ko bigarren enpresarik garrantzitsuenak–.

Gainera, web orri horiek korporazio eta sektore ugariarekin elkarlanean aritzen dira zuzenean eta zeharka, hala nola teknologikoarekin eta banku sistemarekin. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, teknologia-enpresek, hedabideek eta Interneteko zerbitzariak harreman estuak dituzte pornografiaren industriarekin. Halaber, finantza-sektoreak merkatu hori babesten du, Irlandako Bankuak inbertsioak egin ditu Remnant Media pornografia ekoiztetxean, eta, *Cyprus Confidential*-lek agerian utzi duenez, pornografiaren eta Zipreko finantza-sistemaren artean ere badaude loturak.


Sare sozialak: publish yourself

Eduki sexualizatzaileak jauzi egin du interakzio sozialera bideratutako aplikazioetara. Industria horiek negozio errentagarria egiteko aukera ikusi dute sexualizazioan, nahiz eta ez ziren funtzio nagusi horrekin sortu.

Horren erakusgarri argia dira sare sozialak. Gero eta emakume gazteagoen gorputzak bistarazten dira arreta erakartzeko baliabide gisa; horrela, ikusle kopurua eta erabiltzaileek plataforman ematen dituzten ordu kopurua handitzeko helburua dute, eta, ondorioz, onura ekonomikoak lortzekoa. Gomendio-algoritmoak funtsezko zeregina betetzen du hor; izan ere, sareak irudi sexualekin betetzen ditu eduki mota hori etengabe kontsumitu dadin, eta, aldi berean, jende gehiagorengana irits dadin, baita inoiz ikusiko ez zuketan pertsonengana ere.

NGO Algorithm Watch-eko ikerlariak egindako esperimentu batek erakusten du emakumeen eduki sexualizatuak promozio handiagoa lortzen duela sare sozialetan. Barruko arropa jantzita azaltzen diren emakumeen irudiek %54 probabilitate handiagoa dute *feed*setan agertzeko; aldiz, soina biluzik ateratzen diren gizonezkoen irudiak %28 igoarazten dute ikusgarritasuna.

Pornografia-industriaren arrakastaren oinarria da mugarik gabe merkaturatzen duela izaera sexuala duen ikusizko ia edozein material. Ez dago mugarik: grabatutako bortxaketak, adimen artifizialak sortutako irudiak, sexting-trukeetatik lapurtutakoak edota sexu-esplotazio egoerak erakusten dituztenak



***Sare sozialen eguneroko
erabilerak berariazko
publikoa aurkitu
du gazteen artean.
Sexualizazioa gauza
arrunt eta baleko
bihurtu du, askotan
modan dagoenarekin,
onarpen sozialarekin
eta arrakastarekin lotuz***

Ez dago ospe txarra duten orrietan edota segurtasun gutxiko orrietan bilatzen ibili beharrik. X, Instagram, Youtube eta antzeko gune eskuragarriagoetan sexu-edukia hedatzen uzten dute, bai modu zuzenean, bai plataforma espezializatueterako esteken bitartez, adibidez, OnlyFans-erako linken bidez. “Colonización de las redes sociales. El caso Tiktok” (2024) azterlanaren arabera, pornografiakoak ziren 2022-2023 urteetan Youtube, Facebook, Snapchat, Tiktok eta Instagram plataformetan esku-hartutako edukien gutxienez %49,3.

Sare sozialen eguneroko erabilerak berariazko publikoa aurkitu du gazteen artean. Sexualizazioa gauza arrunt eta baleko bihurtu du, askotan modan dagoenarekin, onarpen sozialarekin eta arrakastarekin lotuz. Zenbait ikerketak erakusten dute lotura bat dagoela gorputza erakustearen eta *influencer* ezagunen kontuen arrakastaren artean, eta horiek, besteak beste, markak eta programak promozionatzen dituztela. Emakumearen gorputza modu sexualizatuan erakusten duten argitalpenek interakzio handiagoa sortzen dute, iruzkinak biderkatzen dituzte, eta baita diru-sarrerak ere. Joera hori nabarmenagoa da eduki-segmentu batzuetan, esaterako, modan edota kirolean, baina eragina du beste kanal batzuetan ere, hala nola sukaldaritzakoetan eta bidaiakoetan.

Sare sozialek erraztu egin dute sexualizazioaren industriarekin zerikusirik ez daukaten pertsonen industria horretan parte hartzea, eta hari onurak ematea, ia kosturik eragin gabe. Edozein pertsonak, edozein unetan eta edonon sor dezake kontu bat, eta edukia argitaratu, dirua azkar irabazteko.

Aldi berean, aplikazio horiek oso emaitza onak ematen dituzte emakumea objektu sexual gisa ulertzeko ikusmoldea normalizatzeko eta indartzeko prozesuan.

Puntu honetan merezi du *reality* showen klipak aipatzea, sare sozialetan hedapen handia lortu eta sexualizazioaren industria elikatzen baitute. “La isla de las tentaciones” eta antzeko programek parte-hartzaileen sexualizazioan eta euren artean sortzen dituzten harreman toxikoetan oinarritzen dituzte bere etekinak. Eta, horrela, pertsona baten balio soziala haren dimentsio sexualera murriztea arinkeriez tratatzen da, ez da larritzat hartzen, eta inor bere bikotekidearen aurka oldartzea barreguraz hartzera ere iritsi gaitezke. Parte-hartzaileen asmo bakarra dirua irabaztea da, euren irudia *influencer* gisa sendotuz, eta eduki mota hori erabiltzearen kontura, zeinak ikusle kopurua handia baitu gazteen artean.

Zinemak emakumea objektu sexual gisa eta sakontasunik gabekotzat aurkeztu du, filmean zehar bilakaera esanguratsurik izaten ez duten eta portaera aurreikusgarria duten pertsonaien bitartez

Zinema: emakumea ikono sexualizatu gisa

Filmetan behin eta berriz agertzen den gaietako bat, neurri handiagoan edo txikiagoan, emakumezko pertsonaiaren baten sexualizazioa da. Izan ere, esan daiteke zineman emakumezkoak biluzik ikustea eta irudi sexualizatua erabiltzea hobeto onartzen dela, adierazpen artistikoa delako.

Hala ere, zinemak emakumea objektu sexual gisa eta sakontasunik gabekotzat aurkeztu du, filmean zehar bilakaera esanguratsurik izaten ez duten eta portaera aurreikusgarria duten pertsonaien bitartez: protagonisten rol osagarriak dituzte, edo beren itxura fisikoak definiturikoak. Horrez gain, sektoreko profesionalak bat datoz esatean kamera-mugimenduek, eszenen muntaiak, eta baita lehen planoek ere sexualizazioa sustatu dutela. Ezaugarri horiek baliagarriak izan dira txarteldegian diru gehiago biltzeko eta arrakasta ziurtatzeko.

Trantsizio garaiko biluzte-zinema izan zen has-tapena, lehen aldiz emakumearen gorputz biluzia pantaila handian kokatu zuen genero zinematografikoa. Mota horretako filmak oso errentagarriak izan ziren, kostu txikikoak eta eskari handikoak; Espainian 70eko hamarkadan ekoiztutako filmen %15 inguru genero horretakoak ziren. Hasiera batean sexu-askapenerako eta balio tradizionalekin apurtzeko sinbolo gisa erabili zenak fartsa hutsa izaten amaitu zuen, despolitizazio funtzioa betetzen baitzuen. Izan ere, gizartea asaldatuta zegoen une batean, haren ahalmen politikoa mugatu zuen, eta emakumearen menpekotasun-egoera indartu zuen haren sexualitatea erabilita.

Gaur egungo zinema-ekoizpenari dagokionez, ikusten da egungo zinema saiatzen dela emakumeari protagonismo handiagoa ematen, emakumezko pertsonaia konplexuagoak eta autonomoak erakutsiz, klise tradizioaletatik urrunduak. Dena dela, azken batean, emakumearen irudi sexualizatua indartzen duten estereotipoak erreproduzitzen dituzte, edota neskak nerabe batek eragindako lilura erotikoa indartzen dutenak, eskuarki “lolita” fenomenoaren izenez ezagutzen dena, eta zenbait ikus-entzunezko ekoizpenetan islatzen dena. Horren zenbait zinema-generoetako adibide dira *Lolita* (1997), *Wonder woman* (2017), *Last night in Soho* (2021) eta *Poor things* (2023).

ONDORIOAK

Emakumearen sexualizazioa estrategia ekonomiko gisa finkatu da, eta gaur egun sektore mota askotako jardueraren ardatza da, eta zenbait estatutako ekonomiak dinamizatzen ditu. Sexualizazioa beste merkatu batzuetara hedatu izanak indartu egin du emakumeak etengabe sexualizatzen dituen oinarri kulturala, eta kasu askotan sexualizazioa ahalduntzearekin eta sexu-adierazpen propioarekin identifikatzera iritsi da.

Ordea, gizarte kapitalistak bi arrazoiengatik iraunarazten du emakumeak objektu sexualizat hartzearena; lehenik, gure sexualitatearen kontura etekin ekonomikoak lortzeko, eta bigarrenik, bizi dugun menpekotasun egoera indartzeko. Sexu-balioa nabarmentzeak giza bertute guztiak kentzen dizkio emakumeari, eta subjektu politiko gisa duen jarrera oztopatzen du. Horrek guztiak hondatu egin du emakume langileen bizitza, indarkeriaren mende jartzen gaitu, eta bigarren mailako subjektu gisa kokatu gaitu.

Garrantzitsua da nabarmentzea sexualitatearen merkantilizazioak era larriagoan eragiten diela kolektibo zaugarriari, mundu osoan ehunka mila emakume proletario sexu-esplotaziora eramaten baititu. Errealitate horiek kontuan hartu behar dira, eta gure printzipioen arabera arituz, indarkeria- eta miseria-egoera horiek desagerrarazteko zeregina bere gain hartuko duen programa politiko bat garatu behar da, inork bere sexualitatea saldu behar ez dezan, eta emakumezko guztiok kalitatezko bizi-baldintza berdinak izan ditzagun.

Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da emakumearen sexualizazioaren aurkako borroka haren merkantilizaziotik onurak lortzen dituztenen aurka ere bideratzea. Emakumeak objektu sexualtzat hartzeko egoera sustatzen duen eta masa-kultura sexualizatua normalizatzen duen industriaren aurka borrokatu behar dugu, eta baita industria horretatik irabaziak ateratzen dituzten kapitalisten aurka ere. Horrekin guztiarekin batera, *influencer*- eta kontsumitzaile-multzoa ere seinalatu behar dugu, sexualitatearen salmentan jokatzeko duten rolaengatik.

Merkatu horiek sostengatzen dituzten baldintzak ezabatzen ez baditugu, pentsatzekoa da gero eta emakume gehiagok amaituko dutela sexualizazioaren industrian, pobreziatik ihesean edo, besterik gabe, sosen bat lortzeko.

BIBLIOGRAFIA

Cobo, Rosa (2019). *La prostitución en el corazón del capitalismo.*

Ballester, Luis y Sedano, Sandra (2024). *La industria pornográfica en Internet. Características y consecuencias.*

Guarinos, Virginia (2008). *Mujer en constitución: la mujer española en el cine de la Transición.*

**Merkatu horiek
sostengatzen
dituzten baldintzak
ezabatzen ez baditugu,
pentsatzekoa da gero
eta emakume gehiagok
amaituko dutela
sexualizazioaren
industrian,
pobreziatik ihesean
edo, besterik gabe,
sosen bat lortzeko**







askapen sexualaren aldeko borroka

Testua — **Nadia Perez**

Irudia — **Manubeltz**

7 Oeko hamarkadak zein “iraultza kultural” deitutakoak arau sexual tradizionalak kritika ekarri zuten berekin: moral bikoitza zalantzan jarri zuen, sexualitatea ugalketatik bereizi, plazer eta abortu eskubidea aldarrikatu eta agerian jarri ziren sexualitatearen eta biolentziaren arteko harremana. Eraldaketa horiek, “pertsonala politikoa da” bezalako kontsignetan irudikatuta, onargarria zenaren mugak zabaldu eta sexualitatearekiko jarrera irekiagoa sustatu zituzten, batez ere emakumeentzat eta homosexualentzat. Haatik, desiraturiko askatasun sexualak ez zuen geure gorputzekiko autonomia handiagorik ekarri. Merkatuak eskakizun horiek xurgatu zituen, eta produktu berri bihurtu zuen sexualitatea, emakumearen gorputza esplotatuz eta objektu bilakatuz: emakumeak, “ama” izatetik “objektu sexual” izatera igaro ziren.

(...) desiraturiko askatasun sexualak ez zuen geure gorputzekiko autonomia handiagorik ekarri. Merkatuak eskakizun horiek xurgatu zituen, eta produktu berri bihurtu zuen sexualitatea, emakumearen gorputza esplotatuz eta objektu bilakatuz

Hobsbawmek adierazi zuen iraultza kultural horrek norbanakoak gizartearen gainetik zuen arrakasta irudikatu zuela, zeinetan balio tradizionalen gaitzespenak ez zuen bilatu antolakuntza sozialerako molde berririk, baizik eta norbanakoaren desioaren autonomia mugagabea. Horrek ideia batzuk ekarri ditu berarekin: “erabakitzen baduzu, ez dago arazorik” edo “diruaren truke egiten baduzu, ahaldundu egiten zaitu”. Ordea, emakumeon sexualizazioak eta komertzializazioak genero desparekotasunaren oinarri izaten jarraitzen du, baita berdintasun formalaren aroan ere.

Horren aurrean, ultraeskuineko puritanismo erreakzionarioa arau kontserbadoreak inposatzen saiatu da, *tradwife* fenomenoak adibidez. Bi jarrerak elkarren kontrakoak izanagatik ere, emakumea deshumanizatzen dute, eta bigarren mailako subjektu gisa betikotzen dute.

Norberaren gorputzaren gainean erabakitzeak eta sexualitatea askatasunez bizitzeko, beharrezkoa da errentagarritasun ekonomikoa oinarri duen eta gorputzak zein sexualitatea merkantilizatzen dituen ordena sozial honekin amaitzea. Horrek geure gorputzen gaineko autonomiaren alde borrokatzera derrigortzen gaitu –abortua defendatuz, eraso sexualak borrokatuz–, baina, aldi berean, baita borroka hori indibidualtasun burgesa kuestionatzen duen eta aldaketa sozialerantz zein emantzipaziorantz doan proiektu politiko batekin uztartzera ere.

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Emakumea idealaren irudia, *Sección* *Femeninaren* eskutik

*

June Eguino





Gaur egun, “eureka!” esamoldea irrikaz bilatzen den aurkikuntza edo lorpen baten ospakizun gisa erabiltzen da. Erreakzio kontserbadore berrituaren ideologo nagusiek, “eureka” izendatzeko moduko kontzeptu bat aurkitu dutela dirudi, esku artean dugun buruhauste orori irtenbidea emateko giltza omen dena: “balio handiko emakumea” delakoa. Interneten bilaketa huts bat eginaz, hamaika dira topa ditzakegun gomendioak. Gaur-gaurkoz, gomendio gisa baino gehiago, berebiziko eginbehar gisa mahaigaineratzen zaigu, ordea, “balio handiko emakume” bihurtzea.

Euren burua pentsalari kritiko gisa aurkezten duten ideologo erreakzionario horiek iraganera begiratzen dute inspirazio iturri bila. Aztergai dugun Espainiako Estatuaren kasuan, endekapenaren “woke”aren aurrean Espainiako Estatua nazio indartsu gisa berreraikitzea dute hizpide, eta, horretara bidean, funtsezkoa da balio tradizionalak berreskuratzea. Are, posizio hori indartzeko argudiotzat dute “Espainia noizbait izan zen hura”. Ordea, historiografiak jasotzen duen erregimen jakin baten eta hartan garatu zen iruditeria nazionalaren nostalgia dugu hori. Hain zuzen ere, Erregimen Frankistan zehar izan zen Espainia “Una Grande y Libre”. Ideologo erreakzionarioen arabera, Espainiaren handitasunarekin batera hura “handi” egiten zuten fundamentuak galdu baitziren, berebizikoa bihurtzen da hautsa kentzea nazioa hezurramitzen duten familien zein emakume eta gizonen eredu idealari, berriz ere ideal horiek lehen lerroa har dezaten.

Errepara diezaiogun, bada, Erregimen Frankistak iraun bitartean ardatz zen eta berreskuratu nahi den emakume idealaren irudiari. Diktadura Frankistak genero-politika zapaltzailea ezarri zuen, zeinak emakumea gizabanako independente gisa ukatzen zuen. Emakumeak gizartearen ardatz hezitzaile bihurtzen zituen politika horrek, baina ez zien inongo agentzia propiorik ematen. Emakumeek, “ángeles del hogar” (etxeke aingeru) direlakoan posiziora baztertuak izan arren, aldi berean, “balio” handia zuten eta gizarte berri honen erreprodukziorako bitarteko nagusi gisa gurtzen zituzten. Emakumeei zegokien Espainia Berria erreproduzitzearen eta betiketzearen erantzukizuna. Zaindu eta maitatu egin zituzten, haien bertute fisikoengatik eta ezaugarri moralengatik, egiaz objektutzat hartzen zituzten arren.



Erretolika hark goretsi egiten zuen emakumeak (erregimenaren) erreprodukziorako bitarteko gisa zuen balioa. Emakumearen aitortza sozial hori, ordea, haren kosifikazio eta dominaziora guztiz azpiratuta zegoen. 1934ko ekainean sortu zen, hain zuzen, Falangearen Sección Femenina delakoa, eta erakunde horrek emakumeak hezteko eta mobilizatzeko ardura izan zuen. Erregimen Frankistaren ordena soziala mantentzeko pieza giltzarria izan zen; izan ere, emakumeak nazio-identitate berria eratu eta transmititzeko tresna ziren. Emakumearen eta feminitatearen gaineko ikuskera hori (ama eta emazte izatearena) Sección Femeninaren diskurtso “hezitzaile” guztian zehar egon zen presente Erregimen Frankistak iraun zuen bitartean.

SEXU-IRAULTZA, EMANTZIPAZIORA BIDEAN?

Trantsiziorako saltoak, ordea, abagune paregabea ireki zuen, asaldura politiko eta sozialeko tesuinguru hartan, Erregimenarekiko eta hura ordeztzen zuen elementu ororekiko apurketa erradikala gorpuzteko (itxuran behintzat). Gainera, 70ko eta 80ko hamarkadetan, Espainiako Estatua inflexio puntu bete-betean murgilduta zegoela, iraultza kulturala Mendebalde osoan zehar kutsatzen ari zen. Harekin, amaitu egin nahi izan zen ordura arte emakumeari lotuta eduki zuten iruditeriarekin, hau da, emakumea gizartearen erreprodukziorako baldintza eta motor izan beharrarekin. Eliza Katolikoak zein Erregimenak, baldin eta gizarteak aurrera egiteko itxaropenik bazuen, gainditu egin behar zituen gizartean erroturiko balio batzuk, hala nola purutasunean ardaztutako feminitatea, erreprezio sexuala eta ama eta emazte zen emakumearen iruditeria.

Zokoratutako eta debekatutako hainbat praktika normalizatzea ekarri zuen iraultza kulturalak, eta askapenaren –zehazki sexu-askapenaren– garai gisa hartu den hartan, hainbat mugimendu sozialak hartu zuten indarra. Sexuaren gaineko balio eta arau moralen aldaketa horren eskutik, sexualitateak zentraltasun handia hartu zuen. Hurrengo hamarkadetan zehar, joera horren kristalizazioa ekarri zuen teoria garatu zen, queer teoria hain zuzen. Queer teoria baina, norbanakoaren identitatearen gaian zentratzen da, eta haren jo-puntua, hain zuzen, norbanakoa da: krisian erori den subjektua.

Teoria horrek gordetzen dituen premisek indarra hartzearekin, alde batetik, indibidualtasunaren gorazarrea egiten da, emantzipazioarako ezinbesteko tresna delakoan. Queer teoriaren arabera, norbera da bere errealtatea iraultzearen arduraduna; ez zaio erreparatzen norbera egoera horretara kondentzen duen errealtate materialari, eta, are gehiago, ez dago hura gainditzeko inongo asmorik. Honela, gizabanakoa eta haren desirak gizartearen gainetik jartzen dira. Langile klasea bateratzeko potentzialitatea zuten borroka masiborik ez egotearen ondorioz, 70eko hamarkadaren amaieran politika identitaristetara desbideratu zen sexu-askatasunaren aldeko mugimendua, eta baita feminismoa ere, eta haien aktibismoa esperientzien trukera eta jada lortutako konkisten administrazioa mugatu zen. Emakumeen mugimendua Estatuaren baitan instituzionalizatzeak –alderdi erreformisten barruan, akademian...– emakumeen mugimenduaren baitan ideia burgesak indartzea ekarri zuen. Zentzu horretan, “dena aldatzera” zetorren mugimendu soziala, kale mailan indartsua zena, asimilatu eta etekinak biderkatzeko makina bihurtu du gizarte kapitalistak.

TXANPON BERAREN BI ALDEAK: SEXUALIZAZIOA ETA ERREAKZIO KONTSERBADOREA

Norbanakoa jarri da zentroan, iraultzarako subjektu gisa, bi printzipio faltsuren bueltan eraikita. Batetik, askatasun indibidualaren mitoa dago: norberak askatasunez eta modu indibidualean har ditzake erabakiak, aske izateko borondateaz bakarrik. Bestetik, aurreko premisatik abiatuta, norberaren sexualizazioa eta hura performatzea mekanismo emantzipatzaile gisa aurkezten da (borondate auzia bailitzan ez elikatzea kapitalismoari errentagarriak zaizkion eta betikotzen dituen fenomenoak, sexualizazioa kasu). Fenomeno horrek, ordea, emakumeen aurkako indarkerian sakontzen du, eta emakumeen emantzipazioaren izenean sexu-merkatu berriak irekitzea justifikatzen du. Zapalkuntza ahalduz gisa aurkezten da, gure gorputzen kontura aurrera egiten duen itsasontziaren bandera aldatzeak haren norabidea desbideratzea ekarriko duelakoan.

Arestian aipatu bezala, proposamen politiko horrek huts egiten du esku hartu nahi duen errealtate materialaren azterketan, eta nitxo partikularrak sustatu besterik egiten ez duten praktika batzuk bultzatzen ditu, klase-batasunaren printzipioa arbuiatuaz. Hala, ortzi-muga iraultzailea ezabatzen da, borroka apaltzen da.

Gainera, erreakzio berri bat dugu ate-joka, krisi kapitalistak eta sozialdemokraziak gauzatu ez zituen promesek eragindako nahigabe soziala oinarrian duena, eta kolektibo zaurgarrienen aurkako erasoaldia abiarazi duena (emakume langilearen aurkakoa, kasu). Berrero ere, kolpatzen gaituen endekapen ekonomiko, politiko eta morala geldiarazteko itxaropenarekin, biktimak eta borreroak nahasten dira. Berriz ere, datorren miseria desagerrarazi nahi da haren erroari erreparatu gabe.

Ideologo erreakzionarioen arabera, Espainiaren handitasunarekin batera hura “handi” egiten zuten fundamentuak galdu baitziren, berebizikoa bihurtzen da hautsa kentzea nazioa hezurmamitzen duten familia zein emakume eta gizon eredu idealari, berriz ere ideal horiek lehen lerroa har dezaten

Queer teoriaren arabera, norbera da bere errealitatea iraultzearen arduraduna; ez zaio erreparatzen norbera egoera horretara kondenatzen duen errealitate materialari, eta, are gehiago, ez dago hura gainditzeko inongo asmorik

Beraz, ulertu behar dugu txanpon beraren bi aldeak direla sexualizazioa (nahiz eta emantzipazio-ariketa gisa aurkeztu) eta erreakzio kontserbadorea. Biek ala biek emakume langilearen kosifikazioan sakontzen dute, eta subjektu debaluatu gisa betikotzen dute, zeinaren funtzio bakarra erreproduktzioa eta desira sexualak asetzea den. Izan ere, biak ala biak gaitasun eza erakutsi dute eta ez dute inongo aspiraziorik izan pentsamendu marko burgesetik at kokatu eta miseriara kondenatzen gaituen errealitate materiala iraultzeko.


Erreakzio kontserbadorea, emakume langileon emantzipazioaren aurkako arma gisa

Erreakzioaren gorakadaren atzean dauden arrazoi nagusiak bi dira, eta erdiko klaseen proletarizazio prozesua da lehenengoa. Krisi kapitalista bete-betean eta Ongizate Estatuak desegite prozesuan direla, erdiko klaseen hainbat estratu, orain arte izan duten bizi-maila (pribilegioak) galtzearen ondorioz, planteamendu baztertzailerik eta erreakzionarioak defendatzen hasi dira. Zabaltzen ari den ideia hurrengoa da: langile klasearen eta haren baitako kolektibo zapalduen gaineko esplotazioa handituta, hau da, kolektibo horiek aberastasunaren banaketatik baztertuta, berreskuratu egingen da kapitalismoaren urrezko aroa. Bigarrena Mendebaldeko sozialdemokraziak bizi duen porrota eta ezintasuna da, eta elikatu egiten du aipatutako joera. Krisi bete-betean politika erreformistak egiteko abagunea nabarmen murriztu da, eta agerian geratzen ari da sozialdemokraziak ez duela inolako aterabiderik bizi dugun krisiaren aurrean.

Kapitalaren egonkortasun garaietan Estatuak gaitu izan da langileria masiboki eta “kontsentsuz” integratzeko. Esate baterako, II. Mundu Gerraren osteko hamarkadetan, nolabaiteko eskubide sozial eta politiko batzuk bermatuta izan zituen erdigune inperialistako langile klasearen zati handi batek (hori bai, periferiako langileriaren kontura). Burgesiaren boterearen zilegitasun soziala, beraz, erdiko klase zabal baten bizi-baldintza onen gainean eraikitzen da: bake soziala erosi egiten da.

Kapitalaren metaketa-krisiak, ordea, gizarteko gainontzeko esparruetan ere krisia eragiten du. Gaur egun dagoeneko ez dago langileriaren geruza zabaletan lehengo ongizate ekonomikoa eta eskubide politikoak mantentzeko aukerarik. Prozesu horren eskutik kapitalismoa galtzen doa onarpen soziala. Etorkizun oparo baten itxaropenak “izan den horrekiko” nostalgian ardatzen dira, zeina urrun geratzen den ongizate unibertuala bermatzen zuen errealitatea izatetik. Krisiaren aurreko paradisu horren irudia saltzen da, eta haren izateko arrazoia –ustez berreskuratu behar dena– familia tradizionalaren eta nazio indartsuaren balioak dira, besteak beste. Egungo arazoa, haien arabera, arestian aipatutako balio horiek zalantzan jarri dituzten fenomenoak dira: *woke* izendatu den mugimendu oro edota aberri bateko kultura zein bizimodua arriskuan jartzen duen kanpotarra.

“Segurtasun faltako” testuinguru honetara eramanez gaituena, inongo zalantzarik gabe, “*woke* diktadura” delakoa izan da. Gaur gaurkoz, *woke* gisa izendatzen da eskubide politiko eta sozialen aldeko edozein mugimendu, zaku berberean sartzen da euren gizartearen gaineko iruditerian kabitzen ez duen edozer eta edozein, zeina kriminalizatua eta deuseztatua den. Begiak ireki behar dira. *Matrix* filmean lez, pastilla gorria hartu behar da. Ez da analogia soila, egungo ideologo erreakzionarioek hizpide duten premisa baizik. Horren adibide paregabea dugu aztertutako *Red Pill Podcast* delakoa. Hau diote beren Youtube kanaleko biografian:



Mentiras de
porcelana

de muchos de los resanadores de porcelanas que hoy abunda en España.

Los cursos que se están dando en Madrid y en otros puntos de la península y de América de resanar porcelana, en su mayor parte, los alumnos adquieren los conocimientos necesarios para resanar y poder trabajar por cuenta. Desde el primer día comienzan a aprender la técnica para que los resanadores de una figura o a decorar un trabajo porcelánico, porque una de las ventajas de este tipo de restauración es que siempre se puede atajar un poco más tarde.


También cogieran conocimientos en las tareas de igualar,

de pintar y de aplicar esmaltes, para dar una pieza acabada. Los cursos que se están dando en Madrid y en otros puntos de la península y de América de resanar porcelana, en su mayor parte, los alumnos adquieren los conocimientos necesarios para resanar y poder trabajar por cuenta. Desde el primer día comienzan a aprender la técnica para que los resanadores de una figura o a decorar un trabajo porcelánico, porque una de las ventajas de este tipo de restauración es que siempre se puede atajar un poco más tarde.

A los cursos asiste gente variadísima y con motivaciones muy diferentes. Alumnos, por lo general, son más las mujeres que los hombres", cuenta Isabel Argüelles. "Aquí se pueden encontrar desde jóvenes, que quieren abrirse camino profesional, hasta jubilados, con mucho tiempo libre, pasando por abogados, médicos o economistas, que practican esta actividad en sus ratos libres y aseguran encontrar en ella el mejor antídoto contra el estrés."

Para conseguir que la mano del artesano apenas pueda ser visible una vez restaurada la porcelana no hace falta ser un artista, puesto que no se trata de crear, sino de reproducir y copiar fielmente; pero es imprescindible ser paciente, tener una cierta sensibilidad y, eso sí, una dosis enorme de paciencia.

MARÍA ANA MAS HERRERA
FOTOGRAFÍA
JULIO 2010





“Red Pill filosofiak Matrixen metafora erabiltzen du modu jakin batean pentsatzera, jardutera eta bizitzera mugatzen gaituen baldintza soziala eta kulturala deskribatzeko. Matrixak amets kolektibo batean mantentzen gaitu, eta, hartan, aurkezten dizkiguten ilusioak egiaztat hartzen baititugu zalantzan jarri gabe. Pertsonengan amets kolektibo hori piztea da gure helburua, errealitatea ikusi eta beren bizitzan gaineko kontrola har dezaten”.

Lo dago gizartea, inongo oposizio gabe onartu den “woke diktadura” baten pean, zeinak gizonak biktimizatuta eta menderatuta mantendu nahi dituen. Diskurtso horiek zabaltzen dituzten arrazista, matxista edota klasistek mesias gisa hartzen dute euren burua. Inork gehiago ikusi nahi ez duen eta esatera ausartzen ez den egia dute hizpide. Matxismoa, zentzu komunean zabaltzen den bitartean, apurtzaile eta iraultzaileztat hartzen dute batzuek, normaren aurka joanen bailitzan. Kontrara, ideologizazio ariketa masibo baten bitartekari izaten ari dira.

Diskurtso eta praktika erreakzionarioak zabaltzen ari dira, izan kalean, instituzioetan edo sareetan. Azken horietan aurkitzen dugu, hain zuzen ere, ideologo erreakzionarioen nitxo erraldoia. Ideologo horiek kolektibo zaurgarriaren aurkako diskurtsoak eta ekintzak zuzentzen dituzte, halakoak justifikatzeko argudiaketa zabalduaz, eta, gazteoi dago-kigunez, batik bat sare sozialen bitartez. Indarkeria matxistaren aurpegi berrien erakusleho diren plataforma digital horiek berak zabaltzen mekanismoak dira indarkeria matxista ukatzeko eta erasotzaileen inpunitatea eta kultura matxista normalizatzeke eta zilegiztatzeko.

**Zapalkuntza ahalduntze
gisa aurkezten da, gure
gorputzen kontura
aurrera egiten duen
itsasontziaren bandera
aldatzeak haren
norabidea desbideratzea
ekarriko duelakoan**

Izan ere, sare sozialek gero eta garrantzi handiagoa dute egunerokoan, sozializatzeko ez ezik, gazteentzako espazio pedagogikoa ere bilakatu baitira, gazteon artean plataforma digitalen kontsumoa gero eta altuagoa baita. Jasotzen dugun hezkuntza, hein handi batean, sare sozialek eta haietako erreferenteek ordezkatu dituzte.

Sareetan, podcast fenomenoak azpimarra deza-kegu, zeinaren bitartez ideologo erreakzionarioek itxura zientifiko eta zintzoa eskaini nahi dioten zabaltzen dituzten informazio faltsu eta gezurrei. Izan ere, eztabaida bitartez planteatzen dituzte gai horiek, podcastean gonbidatu “progreak” eta kontserbadoreak elkartuz. Podcast horietan, ordea, kontserbadoreak ez diren gonbidatuak ekartzen direnean, gutxiengo nabarmena izaten dira, eta helburu bakarra horiek umiliatzea izaten da: iraindu egiten dituzte, ez diete hitzik egiten uzten, haien iritzia inongo fundamenturik gabe deuseztatzen da... Eztabaida zintzo gisa aurkezten bada ere, diskurtso kontserbadore berritua inposatzeko plataforma da, zeina fundamenturik gabeko egia absolutuen adierazpenean oinarritzen den. Izan ere, prestigiosko ikerketak eta aldizkariak aipatzen dituzte (egiazkotasuna frogatu gabe), tratatzen diren gaietan “adituak” gonbidatzen dituzte (autoritate argudio gisa erabiltzeko)... hau da, falazietan ardaztutako izaera sasizientifikoaz eta eztabaida hutsalez zilegiztatzen dituzte ideia erreakzionarioak.

Podcast horien bitartez zabaltzen den diskurtso matxistak hiru ideia nagusi biltzen ditu:

1) Matxismoa eta indarkeria matxista ez dira existitzen. Hau da, biolentziak ez du generorik eta emakume langileok jasaten dugun biolentzia-forma espezifiko hau seinalatzeak gizonak biktimizatzeko balio du; izan ere, gizonak arriskuan jartzen ditu haien kontrako salaketak nonahi eta jar daitezkeelako, eta, horrela, euren bizitza ezbaian jarri. Asmakuntza ideologiko bat da.

Matxismoa, zentzu komunean zabaltzen den bitartean, apurtzaile eta iraultzailetzat hartzen dute batzuek, normaren aurka joanen bailitzan

2) Emakumea erreprodukzioarako eta desira sexuala asetzeko objektu bat besterik ez da. Halakoak izan beharko dira “balio handiko emakume” deitu izan direnak, gerora sakonduko dugun bezala. Baieztatzen da ez dela beharrezkoa emakumeak lan egin dezan, etxean senarra eta seme-alabak zaintzen geratu behar dela... Emakumearen irudi puru hori garatzearekin batera, ordea, emakumeen muturreko sexualizazioa dugu. Emakumeak objektu sexual gisa sozializatzen dira, desira sexual oro beteko duten eta kontsumitzekoak diren objektu sexual gisa.

3) Emakumeek jasaten duten biolentziaren arduradunak etorkinak eta emakumeak dira; haiek dira arazoaren erroa. Izan ere, emakumeon aurkako biolentzia existitzen dela onartzen denean, segurtasun faltari atxikitzen diote, zeinaren errudun etorkinak diren. Delinkuentzia eta emakumeon aurkako erasoak zuzenean etorkinekin lotzen dira, hots, emakumeon defentsaren bandera euren gain hartzen dute diskurtso arrazistak elikatu ahal izateko, baina, aldi berean, haiek dira emakumeon interesen aurka egiten lehenak. Gainera, maiz, emakumeengan jartzen da fokua bera, haien ustez gu baikara jasaten dugun biolentziaren erantzuleak (hein batean bada ere), arriskutsua den toki baten egoteagatik, janzkera desegokiagatik, etxera bakarrik itzuli izanagatik...

Premisa ideologiko honetatik abiatuta, iruditeria femenino zein maskulinoaren eta familia nuklearraren endekapena izan baitira maldan behera eraman gaituztenak (feminismoaren eta *woke* politikaren eskutik), balio tradizionalak berreskuratzea dugu irtenbide bakarra. Postura kontserbadoreetarako norabide-aldaketa hori bi kontzeptu zentralak ordeztzen dute: “balio handiko emakumeak”, eta, hari kontrajarrita, “balio handiko gizonak” direlakoak.



***Diskurtso erreakzionarioaren arabera,
emakumea gizona baino balio handiagoarekin
jaio da, eta haren ardura balio hori
kontserbatzea da. Balio hori amatasunak
esleitzen dio, erreprodukziorako gaitasun
eta eginbeharrak, hain zuzen***



EMAKUMEAREN ETA GIZONAREN IRUDITERIA ERABERRITUA

Diskurtso erreakzionarioaren arabera, emakumea gizona baino balio handiagoarekin jaio da, eta haren ardura balio hori kontserbatzea da. Balio hori amatasunak esleitzen dio, erreprodukzioarako gaitasun eta eginbeharrak, hain zuzen. Balio hori kontserbatzeko, emakumeak hainbat ezaugarri bete behar ditu, zeinak purutasunaren ideian ardatzen diren. Emakumea zintzoa eta apala izan behar da, bai jardutean, bai janztean (estali egin behar du bere gorputza). Emakumeak bere irudia zaindu behar du, femeninoa izan behar da, baina bikotekidearen edo senarraren plazererako bakarrik. Ama eta emazte izango da, lanik egin behar ez duen etxeko erregina, zeina senarrak ekonomikoki sostengatu eta fisikoki babestuko duen. Izan ere, hori ez betetzeak ezbaian jarriko luke senarraren maskulinitatea eta hornitzaile funtzioa. Emakumearen balioa erreprodukzioarako gaitasuna da, eta hura da haren arrakastaren oinarria, seme-alabak, senarra eta etxea zaintzearekin batera. Emakumeek senarraren arrakasta bultzatu behar dute, eta inoiz ez hura gainditu (alor ekonomikoan batik bat); izan ere, gizonak ez dute emakume maskulinorik desiratzen, mehatxu bat dira ordena tradizionalerako. Emakume tradizionalak gizonezko tradizionala nahi du, eta, horretarako, otzana izan behar dela onartzen du. Inkoherentea da gizon tradizional batek eskaintzen dituen pribilegio guztiak (babes ekonomikoa, fisikoa, soziala...) nahi izatea eta bueltan emakumeek ezer ez eskaintzea.

Emakumearen irudi idealaren pieza guztiak elkartzen baditugu, *tradwife* delakoa osatuko dugu, Estatu Batuetatik esportatu eta Espainiako Estatuan hautsak harrotu dituen (ikus Roro influence-rra). Izan ere, izena bera laburdura bat da *-traditional wife*; emazte tradizionala, alegia- ongi jasotzen duena gizartearen sostengu izan beharko litzatekeen etxekoandarearen irudia. *Tradwife*ak otordu guztiak zerotik ekoizten ditu, senarraren desira guztiak asetzea du helburu, eta kontent dago senarrak bermatzen dion bizimoduarekin.

Esan bezala, emakume tradizionalak gizon tradizionala behar du, zeinak emakumeak ez dituen zenbait bertute baititu. Gizonak, emakumeak ez bezala, balioa sortu behar du bizitzan zehar. Hau da, bere burua balioztatu behar du. Horretarako, arlo sozial zein ekonomikoan arrakastatsua izan behar da, eta arrakasta hori norberaren ekintzek zein erabakiek baino ez dute determinatzen (meritokrazia premisa gisa). Gizona indartsua eta intelignentea da, fisikoki zein psikologikoki gailentzen da, eta, horregatik, lan egiteko eta familia hornitzeko eginbeharra du. Ez du uzten ez emozioek ezta hormonek ere ahuldu dezaten, eta berebizikoa zaio irudi sendo hori ematea. Gizonak emakumea zaindu behar du, haren ongizatea bermatu behar du, bere bertute fisikoak garaiezinak direla demostratzeko. Horrek bermatuko du haren desiragarritasuna. Exijentzia horiek gauzatzeko, garapen pertsonalaren gailurrera heltzeko, gizonak lan pertsonal handia egin behar du: indar inbertsio handia lantokian (errespetatu egin behar dute arlo profesionalean), baita bere irudi pertsonalean ere (gimnasioaren kulturaren gorazarrea).


Gauzak horrela, “elkar elikatzen duten” bi irudi kontrajarri aurkezten zaizkigu. Alde batetik, emakume azpiratua: objektu pasiboa, erreprodukzioarako eta desira sexualak asetzeko funtzioa duena, eta inongo autonomiarik ez duena. Bestetik, inposatzen den gizona: subjektu aktiboa, agentzia osoa duena eta objektutzat duen emakumearekin edozer egin dezakeena. Botere ekonomiko, sozial eta politiko osoa du bere esku, baita familia mantentzearen eta babestearen ardura ere.

“BERRESKURATU” NAHI DEN IRUDITERIAREN ONDORIOAK

Aldaketa erradikal gisa aurkezten da emakumearen iruditeria berria, garapen pertsonalaren gailur gisa. Aitzitik, kontsumorako objektu izaten jarraitzen du emakumeak, eta, haren aspirazio altuena senarraren ondasun pribatu bihurtzea izan daiteke. Emakumea azpiratuta mantentzen duten genero-rolen berrindartzea eta betikotzea dakar iruditeria horrek. Bi kasuetan, hau da, emakumeekiko errespetuz moztarrotzen denean edota esplizituki kosifikatzen gaituen jarrera denean, emakumeok objektu pasibo gisa sozializatzen gaitu, kontsumitzeko eta aginduak jarraitzeko prest egonen den objektu gisa. Horrek guztiak emakumeon aurkako biolentzian sakontzen du, emakumeon agentzia ezabatuta eta gure zeresanik gabe guregandik edozer exijitu eta hartu daitekeela pentsatuaz. Eskubide zibil eta politikoean atzerakada da planteatzen dena, are egoera zaurgarriagoan kokatzen baitute emakume langilea, biolentzia-forma ezberdinak pairatzeko aukerak biderkatuaz eta aldi berean, halakoei aurre egiteko aukerak murriztuaz.

Gainera, emakume eta gizon idealaren gauzape nerako premisa eta ardatza, aipatu dugun bezala, ardura indibiduala da. Norberak ireki behar ditu begiak, eta, aurkeztutako jarraibideei men eginez, norberak identifikatu behar ditu gainditu beharreko erronkak, bai eta irtenbideak topatu ere. Ez dago lagunduko gaituen inor, bakarrik gaude bizitza honetan, eta norbere burua da izan dezakegun aliatu handiena. Premisa horretatik eratortzen dira hautu askatasuna existitzen delako ilusioa edota norbanakoengana zuzentzen den epai eta xantaia morala (hautu indibidualek determinatzen dutenez geure bizitza, gu geu gara pairatzen dugunaren errudunak).

Aska zaitez zu zeure kateez. Kasu honetan, politika identitaristek ulertzen dute deseraikitze edo askatze lana egingarria dela sistema kapitalistaren baitan (hortaz, ez dute hura ezbaian jartzen), eta ikusmira norbanakoak egin beharreko lanean kokatzen dute. Izan ere, norberaren esku dago miseriari irtenbidea ematea, eta, bide hori ez hartzea erabakitzen badugu, geure errua izango da gertatzen zaiguna. Askatasun kolektiboak eta haren gauzapenak, ordea, menderakuntzarik eta, azken finean, klaserik gabeko gizarte bat eraikitzea eskatzen du. Askatasun kolektiboa aldarrikatzeak aintzat hartzen du egun langileok izan dezakegun ustezko hautu askatasuna guztiz determinatzen dutela baldintza materialek. Hautu askatasuna ez da erreala langile klasearentzako, ez behintzat espotatuak garen egoera honetan.



Determinazio materialak aztertzeari uko egiten dioten praxi eraldatzaile baterako deiek aldarri hutsalak baino ezin dituzte sortu, akaso erradikaltasun kutsu batez moztortuak

Marko estrategiko eta organizatibo iraultzaile-rik ez egotearen ondorioak ditugu horiek guztiak; izan ere, marko iraultzaile bat ezinbesteko baldintza da emakume langilearen emantzipaziora bidean, haren garapen pertsonal eta sexualitatearen garapen librerako. Akats larriak egiten dira proposamen “askatzailearen” forman, edukian zein helburuan. Erreakzio gisa aurkezten da, espontaneo eta norabiderik gabekoa, zeinak fokua indibidualtasunean eta hautu askearen mitoan kokatzen dituen. Interbenitu nahi den errealtatearen gaineko analisi, eta, beraz, seinatatzeko okerrak egiten dira. Emakumeon defentsaren aldarrikapenaren pean garatzen den erretolika horrek ez du inongo asmorik ezta gaitasunik ere hura gauzatzeko.

Begiak irekitzeko beharra aldarrikatzen dute, pentsamendu hegemonikoaren esparrutik ihes egitekoa, baina frogatu dute ez direla horretarako gai, eta, hain zuzen ere, hura indartzen dutela. Determinazio materialak aztertzeari uko egiten dioten praxi eraldatzaile baterako deiek aldarri hutsalak baino ezin dituzte sortu, akaso erradikaltasun kutsu batez moztortuak. Kasurik okerreanean, bidea irekitzen diote kolektibo zaurgarrien kriminalizazioari, interes komun baztertzaile baten izenean.

Ez da borondate auzia. Emakume langileok kolpatzen gaituen zapalkuntza ez da hautu pertsonalek eragindako fenomeno. Beraz, funtsezkoa da errealtate materialaren azterketa zorrotza egitea, eta emantzipazio unibertsalaren zeregina azken muturrera eramateko gai den alternatibari atxikitzea, horrela bakarrik gauzatuko baita emakume langilearen emantzipazioa.

Ardi-larruz janzten den otsoaren aurrean, zaldunkeria moztortutako edo tresna askatzaile gisa birformulatutako matxismoaren aurrean, errealtate materialaren azterketa zehatza funtsezko tresna da zapaltzen gaituen sistemak hartzen dituen formen erroa identifikatzeko, forma horiek erreproduzitzen jarraituko baitira Kapitalari etekin ekonomikoa eta politikoa dakarkioten heinean.

Norberaren zapalkuntza-egoera gainditzeko modu bakarra langile klaseko gainerako kolektiboen interesak urratzea dela ulertu daitekeen honetan, modu egokian esku hartu behar dugu emantzipazio unibertsalaren aukera eta erabateko beharra berregituratzeko, gure asmoa ez baita menderakuntza-sistema bat beste batekin ordezkatzeko, edo berrero bat beste batekin, edo, kasurik onenean, norbera berrero bihurtzea. Nire askatasuna ez baita hasten zurea amaitzen denean, nire askatasuna zurearekin hasten da.

BIBLIOGRAFIA

Rodríguez, D (2017). *La Sección Femenina de Falange como guía adoctrinadora de la mujer durante el Franquismo en Mujeres y saberes. En los límites de lo permitido*, 30, 133-147. Asparkia.

Kipcak, Y (2020). *El Marxismo frente a la Teoría Queer*.

Argitalpena
2025EKO APIRILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
GEDAR LANGILE
KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
HARREMANAK@
GEDAR.EUS

Harpidetza
GEDAR.EUS/
HARPIDETZA

Edizioa
ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA
AZPEITIA

Lege gordailua
D-00398-2021

ISSN
2792-453X

Lizentzia



Argitaratzaileen oharra: Artekean ageri diren ideiak, baieztapenak eta ondorioak artikuluko bakoitzean sinatzen duten egileek dira.



arteka